

BASKEPENSIONES BURTSA GLOBALA GAPI



INBERTSIO POLITIKA

Arriskua bere gain hartzen duten eta Nazioarteko Burtsetako baloreetan inbertitu nahi duten pertsonentzat, %75 eta %100 bitartean.

2022/10/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa**	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
%4,98	-%6,38	-%18,41	-%17,63	%0,86	%0,83	%4,40

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016
-%18,41	16,05%	%3,93	%22,41	-%12,78	10,83%	%1,76

*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2022/10/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%16,31
Lurrunkortasun 3 urte**	%18,15

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzintasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.

HILEKO IRUZKINA

Testuinguru ekonomikoan nagusi jarraitzen du izaten ahultasunak, moneta politikak zorrozteak eragin dezakeen atzerapen orokorraren mehatxuaren ondorioz, eta Ukrainako gatazka belikoa gogortu dela eta. Horren adibide da aditzera eman den NDFren aurreikuspen ekonomikoaren beharapena. Halere, horrek ez du saihestu hilabete honetan finantza merkatuek gorakada sendo bat elikatze behar duten oinarria aurkitzea. Are zehatzago, banku zentralen aldetik tasen igoera erritmoa gelditzeko aukera aurreratu dute horretarako. Argitaratutako datu global batzuetan egondako ahultasunak lagundu egin du moneta-agintariek inflazioa geldiarazteko

moneta-gogortzearen erritmoa gaitutiko duten beldurra baretzen. Zentzu horretan, Wall Street Journal egunkarian argitaratu da Amerikako Erreserba Federalaren barruan badirela oina igoera erritmoa moteltzea proposatzen dutenak, eta horrek FED-aren jokabidean mantsotze bat egongo denaren sententzia areagotu du. Bitartean, Europan, EBZk 75 puntu igo du berriro diruaren prezioa, baina haren tonua hasiera batean espero zena baino lasaiago bezala ulertu da. Lagarde presidentek adierazi bezala, "normalkuntza politika monetarioan egindako lana bukatu ez bada ere, bileraz bilera kontuan hartuko da testuinguru ekonomikoa". Bestalde,

hirugarren hiru hilekoko enpresa-emaizak aurkezteko kanpainaren hasiera uste baino hobea izaten ari da, nahiz ta teknologia-sektoretik datu mistoak lortu dira. Azkenik, arlo geopolitikoan Txinak eta Erresuma Batuk erakarri dute arreta guztia. Asiako erraldoiaren kasuan, Alderdi Komunistaren urte anitzeko kongresuaren itxierak agerian utzi du Xi Jipingen hirugarren agintaldia sendotu egin dela. Erresuma Batuko finantza ministro berriak, berriz, etxeko zorraren eta liberaren kaosa eragin zuen plan fiskala ezeztatatu du. Hala ere, horrek ez du eragotzi Liz Trusek dimisioa aurkeztea, eta horrek on egin die merkatuei. Hala eta guztiz ere, urria izugarri ona izan da merkatuentzat,

errenta aldakorreko digitu bikoitzaren inguruko igoerak izan baitira maila globalean, Txinako burtsarena eta emergenteen kasuan izan ezik. Errenta finkoari dagokionez, zor subiranoaren errentagarritasunek, diru-politikaren aldaketekiko oso sentiberak izanik, kalitate handiagoko errentetan igoerakin itxi dute hilabetea, hilaren erdira arte ikusitakoak baino txikiagoak izan arren. Europako periferiak, bestalde, hobera egin du eta tasak jaitsti ditu. Bitartean, Europako kreditu korporatiboak, burtsen tonu onaren ildotik, diferentzialak murriztu ditu. Azkenik, dolarrak arnasa hartu du, euroaren kotizazioa haundituz.

EZAUGARRI OROKORRAK


Ondarea:	265.829.008,92
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenboltso Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Oso Altua
Inbertsiorako gutxieneko epea:	-



Errenta aldakorrean posizio nagusiak

ACTIBO	PISU
PT. KUTXABANK BOLSA INTERNACIONAL CLASE CARTERA	%18,92
PT. KUTXABANK DIVIDENDO CLASE CARTERA	%16,59
PT. KUTXABANK BOLSA EEUU CLASE CARTERA	%14,42
PT. KUTXABANK BOLSA EMERGENTES CLASE CARTERA	%9,07
PT. KUTXABANK BOLSA TENDENCIAS CARTERA FI	%8,39

Errenta aldakorreko zorroaren banaketa sektoriala



Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza personalizatua, ez eskaintza, eta ez eskara ere. Dokumentu honek ez du ordetzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu beharreneko informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantzatresna batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, Funtzaren eskuratzeko-balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioleak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtzaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) www.kutxabankgestion.es webgunean, enfitate komertzializatzaileen webgunean eta CNMVren erregistroetan kontsultatu daitezke.

BASKEPENSIONES BURTSA GLOBALA GAPI

BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkia askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- **Konfiantza Kutxabanken.** Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- **Onurak Kutxabankeko beste produktu batzuetan** (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez, **PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten** ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitezke.

BASKEPENSIONES BURTSA GLOBAL PLANAK HONAKO ONURAK DITU:

KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

ARRISKUAREN KONTROLA. Aktiboen analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

EGUNEROKO JARRAIPENA

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).

PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

**Hasi etorkizuna planifikatzen,
Baskepensioneseekin:
SIMULAGAILUA**

